

## Hiru errege tranbian

*Hondarribia*, 17. zk., 1987-12/1988-01: 11.

Hondarribia eta Irun bitarteko tranbia, mandoz ibiltzen zen, mandoak modan zeudenean; inbentoa 1896garren urtean jarri zen martxan, eta aurrerabide handiak ekarri bazituen ere, jendea laster zen kaxa; Irungo San Juan plazatik Amute bitarteko bidea egiteko orduerdi bat baino gehiago behar omen zuten mandoek. Zer baba eta zer lasto ematen zien jakin behar: "extra" edo korrienteak! Emilio Navas-ek ez du garai hartako egunkarietan horrelakorik jaso,<sup>1</sup> baina xehetasun hauek dira kontuan hartu behar direnak gauzak paperetan jarri aurretik. Eta, gero, *garestia* zen kexa, gainera; pezeta erdi bat, bi erreal!, kostatzen zen joan-etorriari beste 10 xentimo erastea erabaki baitzuten; zergatik?, arraunlariak mandoek baino merkeago lan egiten zutelako, zeren eta Irundik txalupaz Ondarraitzeko ondartzara etortzea erreal bat, 0,25 pezeta, besterik ez baitzen kostatzen.

Gauzak honela, tratuan jartzen dira "Endarreka" elektrizitate elkarte eta "Irun-Hondarribia" tranbe enpresa; biak elkartuaz: "Electra-Irun-Endara" elkarte berria sortzekotan, 2.500.000 pezetako kapitalaz, tranbe elektrikoa antolatzeke asmoz.

Honek esan nahi du, ordurarteko mandoetan baino gehiago sinesten hasi zirela motorretan sartuta misterioz lanean jartzen hasi ziren zaldietan.

Hala, 1916an, azkenean, tranbea aurrera ateratzeko enpresak J.M. Alonso eta Areizaga ingeniariari eskatzen dizkio aurreplanoak, eta bi urte gero, 1918go azaroan aurkezten dio Irungo udalari aurrekontua: 975.000 pezeta; hurrengo urtean hasten dira lanean, eta 1919go urriak 28, irekitzen da tranbe-eletrikoaren zerbitzua.

Eta hara prezioak:

Irun-Paseo Colon-eko zubia.....	0,10	Hamar xentimo
Irun-Amute .....	0,25	Erreal
Irun-Hondarribiako Alameda .....	0,40	
Irun-Marina .....	0,50	Bi erreal
Irun-Ondartza.....	0,60	

Gaurko pezetari begira, hutsean!

Baina ordukoa peoiaren eguneko lansaria 3 pezeta inguru!

Eta hiru erregeak, non ageri diren? Tranbean egingo zuten proba, seguraski urtarrilaren 5an gabean Hondarribian egoteko, agindua dagoen bezala! Baina tranbez berandu heldu zirenez gero, handik aurrekoan untziz etortzen dira Hiru Erregeak erregetan.

<sup>1</sup> *Irún en el siglo XX* (1900-1936), CAM 1977.